



HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

2023ko urriaren 3ko bilkura

Bi mila eta hogeita hiruko urriaren 3an, arratseko zazpiak eta erditan, Ortzaizeko Herri Biltzarra ohi bezala deitua izan-eta, legeak behartzen duen kopuruan bildu da, biltzarren ohiko lekuan, Jean-Marc OÇAFRAIN auzapeza lehendakari izanik,

Hor zirenak : AYÇAGUER Elorri, CASIRIAIN Elena, CHAMALBIDE Corinne, DACHAGUER Peio, GOICÖECHEA Iñaki, IDIART Claudine, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

Barkatuak zirenak : FALXA Odile.

Bilkurako idazkari izendatua izan da : IDIART Claudine.

Deialdiaren eguna : 2023ko irailaren 29a

Afitxatze eguna : 2023ko irailaren 29a

5. ERABAKIA: BEHIN BEHINEKO ENPLEGU BATEN SORTZEA

(4.2.1 nomenklatura)

Auzapezak Herri Biltzarrari proposatu dio, denbora ez osoko eta behin behineko animatzaile laguntzaile enplegu baten sortzea eskola egunetako eguerdietan haurrak jantokian zaintzeko.

Enplegua 2023ko urriaren 5etik 2024ko uztailaren 5a arte sortuko litzateke.

Asteko lanaldia 5,32 orenekoa litzateke, urte oso batera eramana.

Enplegua C kategoriakoa da.

Enpleguen taula honela eguneratuko da:

Enplegu horren betetzeko, Frantziako Funtzio Publikoaren Kode Orokorreko L.332-23 1° artikulua xedapenak beteko dira, zeinek baimentzen baitute kontratupekoak kontratatzea behin behineko jarduera emendatzei aurre egiteko, 18 hilabeteko garai batean gehienez eta 12 hilabeteko denbora meta daitekeelarik.

Enpleguari 387ko indize gordina aplikatu daki.

Auzapezaren azalpen osagarriak entzunik eta eztabaidaturik,

Herri Biltzarrak:

ERABAKI DU - 2023ko urriaren 5etik goiti, lurralde animazio laguntzaile lanpostu iraunkor eta denbora partzialeko baten sortzea, batez beste astean 5,32 orenekoa,

- enplegu horrek 387ko indize gordinari dagokion saria izanen duela.

BAIMENA EMAN DIO eranskinean den lan kontratua izenpetzeko,

ONARTU DITU Auzapezaren proposamen guztiak,

ZEHAZTU DU kreditu nahikoa badela urteko aurrekontuan.

Kide kopurua : 15

Hor zirenen kopurua : 14

Balitzko boz kopurua : 14

ALDE : 14

KONTRA : 0

ABSTENTZIO : 0

Gorago eman egun, hilabete eta urtean, presente ziren kideek erregistroa izenpetu dute. Laburpen egiazatuaren baliokoa.

ORTZAIZEN, 2023ko urriaren 3an

Auzapeza,
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,
2023/10/10ean publikatu edo notifikatu ondoan,
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2023/10/10ean.